

2016ko MAIATZAREN 26an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **7 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2016ko maiatzaren 26an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez dira etorri	Imanol Lasa Zeberio jn. Ane Arruti Lopetegi and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Osoko bilkura hasi aurretik, udal talde guztiek adostutako ADIERAZPEN INSTITUZIONALA irakurri du **batzarburu** jaunak.

«Gaurko Udalbatzan gogora ekarri nahi dugu JOSE LUIS LOPEZ DE LACALLE jn., kazetaria, 2000ko maiatzaren 7an, 62 urte zituela eta Zarautzen erroldatuta zegoela, Andoainen ETAk atentatuan hil zuena. Gertakari horrek ez zuen inoiz gertatu behar.

Zarauzko Udalak JOSE LUIS LOPEZ DE LACALLERen familiari bere elkartasuna adierazi nahi dio.»

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- HAUTESKUNDE-MAHAIETARAKO KIDEAK IZENDATZEKO ZOZKETA

2016ko ekainaren 26an Gorte Nagusietarako egingo diren Hauteskundeetarako mahaiak osatuko dituzten mahaikideak izendatzeko zozketa hasi aurretik, **idazkari** andreak irakurri egin du jarraitu beharreko prozedurari buruz berak prestatutako txostena. Hona hemen transkribatuta:

“IDAZKARITZAREN TXOSTENA

Gaia: 2016ko ekainaren 26an Gorte Nagusietarako egingo diren Hauteskundeetarako hauteskunde-mahaikideak izendatzea.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskundeen Araubide Orokorri buruzkoak, ezarritakoaren arabera, Udalek izendatu behar dituzte 2016ko ekainaren 26an Gorte Nagusietarako egingo diren Hauteskundeetarako hauteskunde-mahaikideak.

Artículo 26

- 1. La formación de las Mesas compete a los Ayuntamientos, bajo la supervisión de las Juntas Electorales de Zona.*
- 2. El Presidente y los vocales de cada Mesa son designados por sorteo público entre la totalidad de las personas incluidas en la lista de electores de la Mesa correspondiente, que sepan leer y escribir y sean menores de setenta años, si bien a partir de los sesenta y cinco años podrán manifestar su renuncia en el plazo de siete días. El Presidente deberá tener el título de Bachiller o el de Formación Profesional de segundo Grado, o subsidiariamente el de Graduado Escolar o equivalente.*
- 3. Se procede de la misma forma al nombramiento de dos suplentes para cada uno de los miembros de la Mesa.*
- 4. Los sorteos arriba mencionados se realizarán entre los días vigésimo quinto y vigésimo noveno posteriores a la convocatoria.*

Gorte Nagusietarako Hauteskundeetan, guztira 28 mahai osatuko dira, barrutiz barruti zein sekzioz sekzio honela banatuta:

Barrutia	Atala	Mahaia	Hautesleak
1	1	A	779
1	1	B	770
1	2	A	512
1	2	B	475
1	3	A	480
1	3	B	508
2	1	A	627
2	1	B	628
2	2	A	732
2	2	B	692
2	3	A	729
2	3	B	798
2	4	A	696
2	4	B	682
2	5	A	604
2	5	B	641
2	6	A	688
2	6	B	724
2	7	1A	515
2	7	1B	451
2	7	2C	328
2	8	A	774
2	8	B	746
2	9	A	727
2	9	B	620
2	10	A	527
2	10	B	527
2	11	U	908
GUZTIRA			17888

Mahai bakoitzerako mahaiburua, 2 mahaikide eta horietako bakoitzaren 2 ordeko izendatu beharra dago, hau da, mahai bakoitzeko 9 pertsona. Zarautzen guztira 252 lagun behar dira.

Zozketa ausazko moduan egingo da, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) "CONOCE" programaren bidez.

Gai hau dela medio osoko bilkura gehiago egin behar ez izateko, komeni da Udalbatzarrak horretarako erabakia hartzea: hain zuzen ere, norbait baztertzen bada edo kanpoan geratzeko aitzakia onartzen bazaio, kasu horretan, egindako zozketan hurrena dagoen lehenbiziko pertsona izendatuko da, beti ere kargua betetzeko ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu.

Era berean, eta prozedura arintze aldera, komeni da Udalbatzarrak Tokiko Gobernu Batzarrari uztea hauteskunde-mahaikideen zozketa egiteko eskumena."

Horiek horrela —adierazi du—, zozketan bertan kargu bakoitzeko bederatzi ordezeko izendatuko dira hutsunerik gertatzen diren kasuetarako.

Ondoren, eta ezarritako formaltasun guztiak beteta, datorren ekainaren 26an hauteskunde-mahaiak osatuko dituzten pertsonak izendatzeko zozketa egin da.

Akta honekin batera dago, eranskin gisa, 28 hauteskunde-mahaietako bakoitzerako izendatutako pertsonen zerrenda.

2.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA

a) 2016ko apirilaren 28koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

3.- UDAL ORGANOEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2016ko apirilaren 25etik maiatzaren 20ra

Segidan, Alkatetzak 2016ko apirilaren 25etik maiatzaren 20ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2016ko apirilaren 25etik maiatzaren 9ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko apirilaren 25etik maiatzaren 9ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- ASTI KIROLGUNEKO ERAIKINAK HOBETU ETA HANDITZEKO HIRI-BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIA. BEHIN BETIKO ONESPENA

2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea Asti kirolgunean dauden kirol ekipamendu publikoko eraikinak hobetu eta handitzeko hiri-berrikuntzako plan bereziaren proiektuari.

Espedientea jendaurrean egon zen. Ez zen alegaziorik aurkeztu.

Eremuak muga egiten du A-8 autopistarekin. Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Departamentuaren aldeko txostena jaso da.

Oraindik ez dira jaso, ordea, honako administrazioei eskatutako txostenak:

Eusko Jaurlaritzaren Garraio Azpiegituren Zuzendaritzarena (merkantzien trenbide-sarearen egitasmoak eremuari eragiten dio) eta Uraren Euskal Agentziarena (ibilguen polizia gunea).

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, 13 zinegotziren aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Behin betiko onespena ematea Asti kirolguneko eraikinak hobetu eta handitzeko hiri-berrikuntzako plan bereziari. Zarauzko Udalak berak abiarazi du espedientea.

2016ko martxoaren 8koa da onartutako dokumentua, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak idatzitakoa.

Bigarrena.- Onartutako dokumentua Foru Aldundiaren hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea. Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta hirigintzako ordenantzak. Halaber, behin betiko onespenerako akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.

5.- HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN ALDAKETA, 2-2 AREAKO – ALDAPETA– ANTOLAMENDU XEHATUAREN ZEHAZTAPENEI DAGOKIENA. HASIERAKO ONESPENA

Udal gobernu-taldeak hala eskatuta, Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak plan orokorreko 2-2 areako -OR ALDAPETA- antolamendu xehatua aldatzeko dokumentua idatzi zuen.

Aldaketaren aurrekari eta oinarri moduan, Udalak duela gutxi onartu dituen bi hitzarmen daude, biek eragina dutelako arearen hirigintzako xedapenetan:

- Santa Ana Egoitza Fundazioak, Zarautz Lur udal sozietateak eta Udalak berak sinatu beharreko hitzarmena (2016ko urtarrilaren 28an onartu zen).
- VISESA sozietate publikoak, Zarautz Lur udal sozietateak eta Udalak sinatu behar duten lankidetzak-hitzarmena (2016ko apirilaren 28an onartu zen).

Espedientea Hirigintzako informazio-batzordeak aztertu eta eztabaidatu ondoren, 11 zinegotziren aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea hiri antolamenduaren plan orokorraren aldaketari, 2-2 areako -OR ALDAPETA- antolamendu xehatuaren

zehaztapenei dagokienari. Zarauzko Udalak berak abiarazi du espedientea.

Bigarrena.- Espedientea jendurrean jartzea, interesdun orok bidezkoak iruditzen zaizkion alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Jendurreko epea hilabetekoa izango da, eta erakustaldiaren izapidea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien zabaltzen den egunkarian jakinaraziko da.

6.- 10-2 AREAKO – OR SALBERDIN – KONTZERTAZIO HITZARMENA

2015eko abenduan, Promociones Salbide SL sozietateak, bere izenean eta Salberdin hirigintza-areako beste jabe batzuen izenean, kontzertazioko hitzarmen proposamen bat aurkeztu zion Udalari. Areako lurzoruaren jabetzaren % 50 baino gehiago ordezkatzeko zuten proposamena sinatu zuten jabeek.

Udalak jendurrean jarri zuen kontzertazioko hitzarmen proposamena. Honako alegazio-idatzi hauek aurkeztu zituzten:

- Enrique Keller SA eta beste batzuk -arean dauden industria jarduerak- (3 idatzi)
- Santa Maria La Real Parrokia. Hala ere, geroago, atzera egiteko eskatu zuen.

Kontzertazio batzordeko abokatuek eta Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak alegazioei buruzko txostenak egin zituzten. Ondoren, Hirigintzako udal informazio-batzordeak alegazioak eta hitzarmena eztabaidatu zituen.

Espedientea eta haren aurrekariak ikusita, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Aintzat hartzea eta onartzea Santa Maria La Real Parrokiak atzera egin izana aurkeztutako alegazioetan.

Bigarrena.- Enrique Keller SA sozietateak eta beste industria jardueren ordezkariak aurkeztutako alegazioak ezestea. Dena den, birpartzelazio proiektuan honako gai hauek aztertu eta erabaki beharko dira:

- Enrique Keller SAren partzelaren azalera.
- Industria-jarduerari dagozkien kalte ordainen balorazioak, baina kontuan izanda, beti ere birpartzelazio espedientearen hasieraren dataren erreferentziarekin (2015) kalkulatu direla.

Kontzertazio batzordeko abokatuen eta Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuaren txostenetan oinarritu da ezeztapena. Enrique Keller SAri txosten horien kopiak bidaliko zaizkio akordioaren jakinarazpenarekin batera.

Hirugarrena.- 10-2 areako –OR SALBERDIN– kontzertazio hitzarmena onartzea. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016ko urtarrilaren 22an argitaratutakoa da onartutako testua.

Alkateak sinatuko du hitzarmena Udalaren izenean, eta egin beharreko tramiteak sustatuko ditu, hura ongi bete dadin.

Sinatu ondoren, hirigintza-hitzarmenen udal erregistroan sartuko da hitzarmena.

7.- ZARAUZKO UDALERRIAN 2016AN ZEHAR ETXEBIZITZA HUTSAK ALOKAIRUKO MERKATUAN JARTZEN LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI BEREZIAK ETA DEIALDIA

Etxebizitzaren Udal Planak bere egiten du Eusko Jaurlaritzaren "Etxebizitza Plan Zuzendaria 2013-2016"-ren misioa: *"Etxebizitza duin, egoki eta irisgarri bat lortzea erraztuko zaie merkatu libreko etxebizitza bat eduki ezin duten pertsoneri, bereziki krisi ekonomikoaren ondorioz gizarte premian daudenei; epe ertain-luzeko alokairua sustatuko da etxebizitza publikoa esleitzeko modu lehenetsi gisa, eraikitako etxebizitzetan lehentasunez jardungo da, eta hiri birgaitze, berritze eta eraberritze lanak bultzatuko dira, betiere etxebizitzaren sektorean lanean diharduten erakunde eta agente guztiekin modu koordinatuan eta adostuan jardunez."*

Era berean, Etxebizitzaren Udal Planak esaten du helburu hau duela: erraztasunak ematea zarauztarrek etxebizitza duin, egoki eta irisgarria eskuratu, erabili eta gozatzeko. Hori lortzeko funtsezkoa da, alde batetik, etxebizitza berrien sustapenak egitea, baina, baita, beste alde batetik, lehendik daudenak ondo erabiltzea, zaintzea eta, beharrezkoa denetan, mantentze-lanak egin eta birgaitzea.

BIZIGUNE Etxebizitza Hutsen Programan sartutako etxebizitza hutsak alokairuko merkatuan jartzen laguntzeko diru-laguntza, beraz, adierazitako helburua lortzeko bitartekoetako bat da. Ildo horretan, Udalak igo egingo ditu, ekarpen ekonomiko osagarri batekin, Bizigune programak emandako laguntzak. Etxebizitza hutsak errentan jartzea erabakitzen duten titularrei ematen zaizkie laguntza horiek, alokairua kobratzeko bermea izan dezaten. Bizigune Plana erakargarriagoa izan dadin eta jabeek euren etxebizitza hutsak alokatzeko urratsa eman dezaten, Zarauzko Udalak bere aurrekontuetan 200.000 euroko diru-kopuru bat jarri du udalerriko alokairu merkatuan eragiteko.

Adierazitako helburuak lortzeko eta BIZIGUNE programa indartzeko, "ZARAUZKO UDALERRIAN 2016AN ZEHAR ETXEBIZITZA HUTSAK ALOKAIRUKO MERKATUAN JARTZEN LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI BEREZIAK" izeneko dokumentua idatzi da.

Gobernantzako informazio-batzordearen proposamena ikusita, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

Lehena.- ZARAUZKO UDALERRIAN 2016AN ZEHAR ETXEBIZITZA HUTSAK ALOKAIKURUKO MERKATUAN JARTZEN LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI BEREZIAK eta horien deialdia onartzea.

Bigarrena.- 200.000 euroko gastua baimentzea, diru-laguntza deialdiari aurre egiteko.

ZARAUZKO-LUR Lurzoruaren eta Etxebizitzaren Udal Erakundeak erakunde laguntzailearen izaera izango du, oinarrietan jasotako diru-laguntzak kudeatzeko.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta hurrengo egunetik aurrera izango dute eragina akordio honen bidez onartutako Oinarri Bereziek eta Deialdiak.

ZARAUZKO UDALERRIAN 2016AN ZEHAR ETXEBIZITZA HUTSAK ALOKAIKURUKO MERKATUAN JARTZEN LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI BEREZIAK

ZIOEN AZALPENA

Udalaren asmoa da ahaleginak egitea etxebizitza hutsak alokairuko merkaturak jartzeko; eta hori Zarauzko Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren baitan eta Etxebizitzaren eta Lurzoruaren 2016-2019 Udal Planean jarritako helburuekin bat etorritik.

Izan ere, Etxebizitzaren Udal Planak bere egiten du Eusko Jaurlaritzaren "Etxebizitza Plan Zuzendaria 2013-2016"-ren misioa: *"Etxebizitza duin, egoki eta irisgarri bat lortzea erraztuko zaie merkatu libreko etxebizitza bat eduki ezin duten pertsonen, bereziki krisi ekonomikoaren ondorioz gizarte premian daudenei; epe ertain-luzeko alokairua sustatuko da etxebizitza publikoa esleitzeko modu lehenetsi gisa, eraikitako etxebizitzetan lehentasunez jardungo da, eta hiri birgaitze, berritze eta eraberritze lanak bultzatuko dira, betiere etxebizitzaren sektorean lanean diharduten erakunde eta agente guztiekin modu koordinatuan eta adostuan jardunez."*

Zarauzko Udalari funtsezkoa iruditzen zaio erakundeek elkarrekin lan egitea helburu jakin batzuk lortzeko. Ildo horretan, lankidetzak-hitzarmen bat sinatu zen Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin, hark bultzatu baitzuen "BIZIGUNE Etxebizitza Hutsen Programa". Programa hori 2003an sortu zen, merkatu libreko etxebizitza hutsak bildu eta alokairuko merkaturak jartzeko eta, gero, etxebizitza horiek Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatutako pertsonen edo bizikidetzak-untitateen esku jartzeko. Azkenean, programaren helburu nagusia da etxebizitza hutsen jabeekin adostasunera iristea euren etxebizitzak BIZIGUNE programan sartzeko. Ordainetan, merkaturako hileko ohiko errentaren % 65 eta % 75 artekoa jasoko dute jabeek, baina beti ere berme batekin: euren etxebizitza antzeko baldintzetan berreskuratzea. Errentariek, berriz, gehienez ere urteko diru-sarrera gordin zenbatuen % 30 ordainduko dute, babes ofizialeko etxebizitzaren arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.

Gaur egun, Zarautzen, 12 etxebizitza daude BIZIGUNE programan, nahiz eta iraganean 30 etxebizitza ere egon ziren. Beraz, ondorioztatu daiteke programak gaur-gaurkoz ez duela betetzen lortu nahi den helburua. Horiek horrela, Zarauzko Udalak erabaki du ahalegin bat egitea eta BIZIGUNE programan aurreikusitako ekarpenak osatzea. Horren helburua da alokairu libreko merkaturak etxebizitza lortu ezin duten herritarrei aukera ematea hutsik dauden etxebizitzak alokairu babestuan eskuratzeko.

Bestalde, adierazi behar da bi erakundeek partekatzen dituzten zereginen artean daudela, baita, hiri birgaitzeak, berrikuntzak eta eraberritzeak. Horrenbestez, eta ikusirik badaudela okupatu aurretik obrak behar dituzten etxebizitza huts batzuk, erraztasunak eman nahi zaizkie etxebizitza hutsen jabeen obra horiek finantziatzeko.

Oinarri hauetan, laguntzak lortzeko baldintzak, haien tipologia eta prozedura zehazten dira.

Zarauzko Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrek 10.1.e artikuluan esaten du diru-laguntzak zuzenean eman ahalko direla, pertsona onuradunen ezaugarriengatik edo diru-laguntzaren xede edo izaerarengatik norgehiagoka-

araubideko emakida bidezkoa ez denean. Artikulu horrek berak 2. atalean adierazten du horrelako diru-laguntzetan oinarri arautzaileak egingo direla, eta ez onuradun bakoitzarekin sinatu beharreko hitzarmen partikularrak.

Talde horretan sartzen dira, hain zuzen, etxebizitza hutsak alokairuko merkatuan jartzen laguntzeko diru-laguntzak, baldintzak betetze hutsarekin finantziazten baitira eskaerok. Kasu horietan emaitza bat lortzea da diruz laguntzen dena, alegia, etxebizitza hutsa BIZIGUNE programan sartzea. Horrenbestez, emakida zuzenaren bidez tramitatuko dira diru-laguntza hauek.

Horiek horrela, etxebizitza hutsak alokairuko merkatuan jartzen laguntzeko diru-laguntzen oinarri arautzaile hauek egin dira, 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak, legez emandako eskumenei jarraiki eta Hirigintza, Obra, Proiektu, Zerbitzu eta Ingurumeneko Batzordeak hala proposatuta. Hona hemen oinarrien edukia:

I KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1 artikulua. Helburua

Zarauzko Udalak diru-laguntza batzuk emango ditu etxebizitza hutsak alokairuko merkatuan jartzen laguntzeko, BIZIGUNE Etxebizitza Hutsen Programaren bidez. Diru-laguntza horiek arautzea da oinarri hauen helburua.

2 artikulua. Erakunde Laguntzailea

38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Diru-laguntzei buruzkoak, 12.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, hau izango da oinarri hauetan araututako diru-laguntzak kudeatzeko Erakunde Laguntzailea: Zarautz-lur Lurzoruaren eta Etxebizitzaren Udal Erakundea. Udalaren eta erakunde horren arteko Lankidetzak Hitzarmenean finkatuko dira kudeaketa horren baldintzak.

Zarautz-lur izango da oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak lortzeko "leihatila bakarra". Hor egingo dira eskaerak, eta hor jaso eta tramitatuko da dagokion dokumentazioa.

3 artikulua. Araubide juridikoa

Honako arau eta legeak arautuko dituzte oinarri hauen xede diren diru-laguntzak: oinarri honetako xedapenek; 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Diru-laguntzei buruzkoak; 887/2006 Errege Dekretuak, legea garatzeko erregelamendua onartzen duenak; eta horien ordean, zuzenbide administratiboko gainerako legeak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

4 artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura

Diru-laguntzak zuzenean emango dira, interesdunak eskaera egin ondoren. Eskaeran egiaztatuko da betetzen direla oinarri hauetan jarritako baldintzak.

5 artikulua. Baliabide finantzarioak

Indarrean dauden Udal Aurrekontuetan adierazitako baliabideak aplikatuko dira oinarri hauetan araututako diru-laguntzetan. Partida hori bukatzen denean, laguntzak gelditu egingo dira, kontsignazio berria egin arte.

Hala ere, eskaera batek oinarri hauetan araututakoaren arabera onartua izateko baldintza guztiak betetzen baditu baina laguntzarik ematen ez bazaio soilik baliabide ekonomikoak bukatu direlako, orduan, hurrengo ekitaldian jaso ahalko du, baldin aurrekontuetan kontsignaziorik badago.

II KAPITULUA

DIRUZ LAGUNTZEKO JARDUERAK, ONURADUNAK ETA PROZEDURAK

6 artikulua. Diruz laguntzeko jarduerak

Bi laguntza mota aurreikusten dira oinarri hauetan. Bi laguntzak bateragarriak dira:

1. Diruz laguntzekoak izango dira BIZIGUNE programan aurreikusitako kontratua sinatzeko Alokabidek etxebizitzaren titularrari eskatzen dizkion egokitzapen-lanak.

2. Diruz laguntzekoa izango da, baita, etxebizitza hutsa BIZIGUNE programari lagatzea. Helburua da programa horretan aurreikusitako ekarpen ekonomikoak osatzea.

7 artikulua. Diru-laguntzaren gehienezko kopuruak

Hilero-hilero 200 euroko diru-laguntza emango da gehienez.

Etxebizitza egokitzeko jardueren diru-laguntzak ordainketa bakarrean egingo dira, eta egindako gastuaren % 50ekoak izango dira (zergak sartu gabe), gehienez 3.000 euroko mugarekin.

8 artikulua. Onuradunen betebeharrak

Programa honetan aurreikusitako diru-laguntzak lortzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

1. Hileroko diru-laguntzen kasuan, batetik, Zarauzko udal mugapean kokatutako etxebizitza hutsa BIZIGUNE programaren esku uztea, eta, bestetik, usufuktu-kontratu bat sinatzea etxebizitzaren jabe den eskatzailearen eta Alokabide sozietatearen artean.
2. Etxebizitza egokitzeko laguntzen kasuan, berriz, aurreko atalean adierazitako baldintzez gain, egokitzapen-lanak egitea, Alokabidek eskatutakoa betetzeko.

9 artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

- a) NANen kopia
- b) Alokabide sozietate publikoarekin sinatutako usufuktu-kontratuaren kopia
- c) Hileroko laguntzak jasotzeko: Alokabidek egindako diru-sarreraren frogagiriak aurkeztu beharko dira.
- d) Ordainketa bakarreko laguntzak jasotzeko: egokitzapenak egiteko Alokabideren eskaera, horien fakturak eta egindako obren adostasuna, Alokabidek emandakoa.
- e) Kontuaren zenbakia, laguntza ordaintzeko.
- f) Idatzi bat, zeinak ahalmena emango dion Zarauzko Udalarri zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteta daudela zuzenean frogatzeko.

10 artikulua. Onuradunen betebeharrak

Edozein diru-laguntza moten onuradunek bete beharreko baldintzak beteko dituzte onuradunek, alegia, Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 20 artikuluan jasotakoak.

11 artikulua. Diru-laguntzen tramitazioa

Oinarri berezi hauetan aurreikusitako diru-laguntzak lortzeko, eskaera aurkeztu beharko dute interesdunek Zarautz-lur udal erakundearen erregistroan. Eskaerak aurkezteko epea irekita egongo da urte osoan zehar.

12 artikulua. Prozeduraren tramitazioa eta ebazpena

1. Zarautz-lur Erakunde Laguntzailea izango da diru-laguntza hauen organo instruktoea.
2. Organo instruktoeak behar adina jarduera egingo ditu, ofizioz, baldintza administratiboak zehazteko, ezagutzeko eta frogatzeko eta inbertsioaren balorazio tekniko eta ekonomiko egiteko.
3. Zarautz-lurreko Lehendakaritzak egingo ditu diru-laguntzak emateko ebazpenak, instruktoeak egindako proposamena ikusi ondoren.

13 artikulua. Diru-laguntzen ordainketa eta diru-laguntzaren xedearen justifikazioa

Zarautz-lurrek aldeko txostena egin ondoren ordainduko dira diru-laguntzak. Txostenean egiaztatuko du bete direla laguntza emateko behar diren baldintza guztiak. Honela egingo da ordainketa:

- Hiruhileko ordainketa bat, eskatzailearen eta Alokabide sozietatearen arteko kontratua indarrean dagoen hilabete oso bakoitzeko. Alokabidek egindako diru-sarreraren frogagiria aurkeztu ondoren jasoko da diru-laguntza.
- Ordainketa bakar bat, BIZIGUNE programan aurreikusitako kontratua sinatzeko etxebizitzaren titularrari Alokabidek eskatzen dizkion egokitzapen-lanak ordaintzeko. Alokabideren adostasuna aurkeztu ondoren jasoko da diru-laguntza.

Alokabidek eskatutako egokitzapen-lanak errazago finantziatzeko, hiruhileko ordainketa pilatu ahalko da, eta, horren ordez, ordainketa hori aldi bakar batean egin. Diru-laguntzak ezingo du, inolaz ere, etxebizitzan egindako egokitzapen-lanen kostua gainditu.

14 artikulua. Publizitatea

Emandako diru-laguntzak erakusgai egongo dira hiruhileko natural bakoitzaren ondorengo hilabetean, bai Zarautz-lurreko iragarki-taulan, bai Udalaren web orrian.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Euren etxebizitza hutsa dagoeneko BIZIGUNE programari emanda daukaten jabeek ere diru-laguntza hauek jaso ahalko dituzte, argitaratzen direnetik aurrera. Dena den, diru-laguntzak ez dira inoiz atzeraeraginezko izaerarekin emango.

ZARAUZKO UDALERRIAN 2016AN ZEHAR ETXEBIZITZA HUTSAK ALOKAIRUKO MERKATUAN JARTZEN LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

1. Finantza-baliabideak

Zarauzko udalerrian 2016an zehar etxebizitza hutsak alokairuko merkatuan jartzen laguntzeko diru-laguntzen zenbatekoa, guztira, 200.000,00 € da.

2. Eskaerak aurkeztea

Oinarri berezi hauetan aurreikusitako diru-laguntzak lortzeko, eskaera aurkeztu beharko dute interesdunek Zarautz-lur udal erakundearen erregistroan, deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Eskaerak aurkezteko epea irekita egongo da urte osoan zehar.

3. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Diru-laguntzaren eskaera Zarautz-lur Lurzoru eta Etxebizitzara Udal Erakundearen ofizinan, Salegi kalea, 14, aurkeztu beharko da. Eskaerarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da.

- a) NANen kopia
- b) Alokabide sozietate publikoarekin sinatutako usufuktu-kontratuaren kopia
- c) Hileroko laguntzak jasotzeko: Alokabidek egindako diru-sarrerren frogagiriak aurkeztu beharko dira.
- d) Ordainketa bakarrek laguntzak jasotzeko: egokitzapenak egiteko Alokabideren eskaera, horien fakturak eta egindako obren adostasuna, Alokabidek emandakoa.
- e) Kontuaren zenbakia, laguntza ordaintzeko.
- f) Idatzi bat, zeinak ahalmena emango dion Zarauzko Udalarri zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteta daudela zuzenean frogatzeko eta Onuradun izaera lortzeko Zarauzko Udaleko diru-laguntzak emateko ordenantza orokorraren 11. artikuluan aipatutako debeku bat bea ere ez duela egiaztatzen duen ardurapeko adierazpena, deialdi honen 3. eranskinean jasotako ereduaren arabera egina. Adierazpen horretan espresuki jasoko da zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela.

Aurkeztutako eskabideak behar bezala ebaluatzeko eta erabakitzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarri oro eskatu ahal izango du izapidegileak.

8.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) EH Bildu taldearen mozioa: udal-kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk sartzeko

Ondoren, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Honela dio:

UDAL-KONTRATAZIO PUBLIKOAN KLAUSULA SOZIAL JAKIN BATZUK SARTZEKO MOZIOA

Aurrekariak

Estatu sozial batean herri-botereen jardunean aintzat hartu beharreko kontua da pertsonen garapena bermatzeko gutxieneko bizi-baldintza batzuk finkatzea.

Krisi ekonomikoak kalte handia eragin du lan merkatuan. Langabezia hazi egin da eta enplegua dutenen lan-baldintzak kasu askotan murrizketa handiak ari dira jasaten.

Gainera, egoera juridiko-laborala zalantzazkoa da, hitzarmen kolektibo askoren iraupena galdu egin baita estatuko Gobernuak 2012an egindako erreforma laboralaren ondorioz.

Proposamen honen oinarria da ezikusiarena ez egiteko borondatea, eta egoera hori bideratzeko ahaleginean ekarpen bat egitekoa, urrats egingarrien bidez.

Argi dago Udal honek ez daukala legegintza laboraleko eskumenik, baina egia da ere langile askok eta askok herri-administrazioen menpe diharduela, zuzenean ala zeharka. Hala da, noski, herri-administrazioentzat lan egiten duten enplegatuen kasuan, funtzionario, estatutario edota laboralen erregimenean dela ere. Baina pertsona askok ere zeharka arlo publikoarentzat lan egiten duten enpresa pribatuetan dihardu, Arlo Publikoko Kontratuen Legearen baitan egindako kontratuak medio. Hartara, kontratazio publikoa jarduera ekonomiko garrantzitsua da, eta honetan Udalak bai daukala eragiteko aukera, kontratuetarako baldintza minimo batzuk ezarrita.

Legez kudeatzeko era hau onartuta dagoen arren, ezin da ahaztu kontrolik gabeko azpikontratazio batek lan-merkatuan egonkortasun eza eragin dezakeela. Hau diogu egungo agertoki juridikoarekin ez dagoelako lan-baldintzen gutxieneko maila bat (minimo legalak gorabehera); ezegonkortasuna sortzen da arlo publikoaren kudeaketa modu honek sortzen duen enplegua maiz badaezpadakoa izan ohi delako.

Udal honek azpikontratatzeko duen enplegua prekarioa eta ezegonkorra izatea arrazoi nahikoa da proposamen hau bultzatzeko; bere xedea, Udal honek eta bere erakundeek edo menpeko entitateek kontratatzen dituzten obretan, herrilanean, zerbitzu publikoen kudeaketan eta zerbitzuetan gutxieneko baldintza sozialak bermatzea.

Hitzarmen kolektiboa, kontratu publikoei ezarri beharreko lan-baldintzak

Hitzarmen kolektiboen iraupenari buruzko erregimen legalean egin diren erreformek, eta zehazki ultraaktibitatea urtebetera mugatu izanak, zalantza juridiko orokorra hedatu du hitzarmenetan araututa zeuden lan-baldintzei dagokienez, hauek legearen arabera dagoeneko indarrean ez dauden kasuetan.

Gainera, hitzarmen sektorial probintzialek ezarritako baldintzak honez gero ez dira sektorerako gutxieneko baldintzak, negoziazio kolektiboaren egituran eta hitzarmen kolektiboen konkurrentzia-erregimenean egindako erreformen ondoren.

Honen ondorioz, beharrezkoa da ekimen bat gutxieneko lan-baldintzak ezartzeko; halakotzat joko dira kontratua garatzen den sektoreko esparru txikieneko hitzarmen sektorialekoak. Izan ere, kontrara, posible litzateke kontratua hartzen duen enpresa bakoitza baldintza desberdinekin aurkeztea, eta horrek dumping laboralaren gisako zerbaiti bide emango lioke, hots, kontratua esleitzen zaien enpresen eskaintzen arteko lehia beren enplegatuen lan-baldintzak murriztean oinarritzea.

Enplegu azpikontratuaren egonkortasuna

Zerbitzu publikoen esternalizazioak eragiten duen beste arazo bat enplegu ezegonkorra dugu. Enpresa kontratistak sarri aldatzen dira, eta maiz zerbitzua uzten duten enpresetako langileek enplegua galtzen dute edota berrian beste kontratu bat egiten diete, hots, aurreko lan-kontratuaren baitan bereganatutako baldintzak ez dira aintzat hartzen.

Egoera hauek kalte egiten diote enplegu egonkorrari; lehenago hitzarmen sektorialekin konpontzeko saioa egiten zen, horietan subrogazioa aitortzen duten klausulak sartuaz.

Haatik, sektore mailako subrogazio-berme hauek pairatzen ari dira negoziazio kolektiboko egituraren erreformak hitzarmen sektorialetan oro har duen eragina; hitzarmenok gehienez probintzialak izan ohi ziren, eta hauek genituen enpresa kontratista aldatuz gero bermerik sendoena. Negoziazio-esparru estatalen ahalmen arautzaile eta egituratzaile handiagoaren eta enpresako hitzarmenaren lehentasunaren eraginez, hainbat hitzarmen probintzial oso mugatuta dago lan-baldintza jakin batzuk arautzeko. Azpikontratazioari dagokionez, esaterako, egiturari buruzko hitzarmen estatal batzuk berentzat gordetzen dute hura arautzeko ahalmena, eta propio baztertzeko dituzte beste esparruak.

Konpromisoa

Azaldu den arazoa ikusirik, Mozio honekin hartu nahi den konpromisoa da udal-kontratazioan derrigor ezartzea klausula sozial jakin batzuk, lanak egiteko, herrilanak esleitzeko, zerbitzu publikoak kudeatzeko eta zerbitzuak eskaintzeko kontratuetan. Eskakizun hau gauzatuko litzateke esleitzeko prozesua arautzen duten baldintza-agirian.

Horietan derrigor bete beharreko klausula sozial gisa sartuko dira gutxieneko esparru txikieneko sektore-hitzarmeneko baldintzak derrigor errespetatzea eta kontratua amaitzen duen enpresako langileak subrogatzea, hots, kontratua hartzen duen enpresa berria uzten duenaren eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatzen da.

Halaber, beharrezko jotzen da klausula horiek aintzat ez hartzea kontratuaren urraketa larri gisa arautzea, eta hori kontratua amaitzeko balizko zergatia izan liteke.

Proposamena

Arestian azaldutako aurrekariak bultzatzen gaituzte mozio hau idatzi eta Udaltzako honako akordioa onartzera:

Akordioa:

“Zarazuko Udaltzaren osoko bilkuran erabaki du akordio hau erabakitzen den egunetik aurrera beharrezko tramiteei ekingo diela ahalik epe laburrean honako klausulak sartzeko Udaltzaren honen edota bere menpeko organismo zein erakundeek egiten dituzten kontratu publikoetako baldintza-agirietan (lanetakoak, herrilanak esleitzekoak, zerbitzu publikoak kudeatzekoak eta zerbitzuak):

1) Enpresa kontratisten gutxieneko baldintzei buruzko klausula soziala.

Lehiaketa iragarpenean zein herri-administrazioetako kontratazio prozeduren klausula administratiboen pleguen karatulan ohar bat jarri beharreak izango da, esanez kontratazio hori derrigor bete beharreak baldintza berezi hauen pean dagoela:

"1.-Kontratu honek errespetatu egin behar ditu lanari, gizarte-segurantzari eta lan-osasun eta segurtasunari buruzko xedapenak (lege, araudi eta hitzarmenetakoak direla ere), batik bat enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru txikiena duen azken hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak . Enpresa kontratistak/ lan zentroak hitzarmen sektorialaren lan baldintzak hobetzen dituen hitzarmen kolektibo edo itun propioa izango balu, kontratua baldintza hauei lotua egongo litzateke.

Aipatutako hitzarmenean jasotako baldintzak izango dira kontratuari dagozkion jarduerak egiten dituzten langileei enplegua emateko gutxieneko baldintzak, nahiz eta hitzarmen hori Langileen Estatutuko 86.3 artikulua onduz iraungita egon.

2.- Aurreko puntuaren arabera, erakunde kontratugileak ezarriko duen lizitazio-prezioa nahikoa izan behar da enpresek esparru txikieneko hitzarmen kolektibo sektoriala aplikatzeak eragingo duen kostua ordain ahal dezaten, subrogatu beharreak guztirako langile kopurua aintzat hartuz, eta lizitazioan ezartzen den orduko prezioa ezin da inolara ere apalagoa izan hitzarmeneko orduko prezioa, gehi gizarte-segurantzako kostuak baino.”}

2) Azpikontratazioari buruzko klausula soziala.

1. Lehiaketaren iragarpenean zein herri-administrazioen kontratazio-prozeduren klausula administratiboen pleguetako karatulan ohar bat ezarri beharreak izango da, esanez kontratazio hori gutxienez hiru hileko antzintasuna duten langile guztien subrogazioa bermatzeko baldintzapean egiten dela, beste kontrata batekoak izanagatik ere, kontratuko jarduera egiten ari badira; enpresario berria aurrekoaren eskubide eta betebeharrak laboraletan eta Gizarte-Segurantzakikoetan subrogatuta geratzen da, pentsio-konpromisoak barne, araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera, eta oro har, gizarte-babes osagarriari buruz bere gain hartu ahal izan dituen betebeharrak dagokienez.

2. Kontratua esleitu zaion enpresak kontratuaren zati bat besteren esku uzteko aukera dagoela aurreikusiz gero, klausula administratibo partikularretako pleguetan klausula bat ezarriko da aukera hori arautzeko, eta berriaz aipatuko da hirugarren enpresa horrek jarduera hori egiten zuten langile guztiak subrogatu beharra; enpresario berria aurrekoaren eskubide eta betebeharrak laboraletan eta Gizarte-Segurantzakikoetan subrogatuta geratzen da, pentsio-konpromisoak barne, araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera, eta oro har, gizarte-babes osagarriari buruz bere gain hartu ahal izan dituen betebeharrak dagokienez.}

3) Zigorrak. Urratzeak. Balizko kontratuaren etetea.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak kontratuak gauzatzeko baldintza berezi gisa finkatu beharrekoak izango dira, eta hauek gauzatzeko markoan egiaztatu beharko dira. Hauek urratzea betebeharrak kontraktualen arau-hauste larria izango da, eta ondorioz kontratua eteteko aukera irekiko du.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, botoen gehiengoaz, transkribatutako mozioa atzera botatzea.

Une honetan, **Iban San Martin** jauna bilkutatik joan da.

EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK AT

EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK KANPORA, eta bilkuran dauden zinegotziek aho batez presazkotzat hartu ondoren, gai hau aztertu dute:

– EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE

EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioa irakurri dute. Honela dio:

ISOLAMENDURIK EZ! EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE

Itziar Moreno euskal preso isolamendu egoeran sartu zutenetik 25 egun igaro dira. Fresneseko kideak borrokari ekin zioten, tartean Ekhiñe Eizagirre Zubiaurre gure herrikidea. Gizonezkoek 17 egun bete dituzte jada gose greban, eta emakumezkoek hasierako egunak zigor ziegan egin bazituzten ere, astelehenetik bertatik gose greban sartu dira ere. Borrokaldi mugagabea planteatu dute, Itziarren isolamendu egoera bukatu arte edota beste espetxe batera eraman arte. Era berean, ez dute onartuko kiderik ez dagoen espetxe batera eramatea.

Espetxe politika neurrigabea erabiltzen dute Euskal Herrian irekitako bake prozesua zapuztu eta euskal presoek etengabeko salbuespen neurriak ezartzeko. Euskal presoek ezartzen zaien isolamendua eta sakabanaketa politika ankerrak salatu nahi ditugu. Euskal presoek espetxeetan pairatzen duten egoerak okerrera egin du. Eskubide urraketa eta mendekua oinarri duen espetxe politika ezartzen diete Madril eta Parisek euskal presoek gatazka politikoaren konponbidea eragozteko helburuarekin.

Estatu Espainiar eta Frantziarraren jarrera salatu nahi dugu, eta gaurkoan bereziki Fresnes-eko espetxean gertatzen ari dena. Espetxe politika neurrigabea erabiltzen dute Euskal Herrian irekitako bake prozesua zapuztu eta euskal presoek

etengabeko salbuespen neurriak ezartzeko. Euskal Herriko jendarte eta eragile gehienak, nazioarteko erakunde zein pertsonalitate gorenek dispersioa eta salbuespeneko neurrien aurka azaldu direnean garaia da halako zigor neurriekin behin betikoz amaitzeko.

Inoiz baino beharrezkoago da indarrak batzea. Isolamendu eta sakabanaketa politikak gainditzeko herritarrok eta erakundeok eman ditzakegun urratsak erabakiorrak izan daitezke. Arlo sozial zein politikoan aurrera pausoak ematen jarraitu beharra dago Estatuek egun mantentzen duten mendeku politikak alboratu ditzaten.

Hau guztia kontutan hartuta, Udalbatza honek honakoa adierazten du:

1.-Udalbatza honek pertsona guztien giza eskubideak, bake eta bizikidetzaren egoera egonkorra defendatzen du, eta beraz, espetxe politikaren salbuespen egoerakin amaitzea aldarrikatzen du.

2.-Fresnesen bizi duten egoera larria kontutan izanik, Udalbatza honek Fresnes-eko espetxean zigor ziegan eta gose greban diren euskal presoek elkartasuna adierazten dio.

3.-Udalbatza honek konpromisoa hartzen du Fresnes-eko espetxearen egoera eta bertan dauden euskal presoek egoera zuzena zein den ezagutzeko. Horretarako Udalak duen ordezkari altuena Fresnes-era bertaratuko da.

4.-Udalbatza honek eskaera egiten dio Fresnes-eko espetxeko Zuzendaritzari euskal presoek bizi baldintza duinak bermatzeko.

5.-Udalbatza honek, Espainia eta Frantziako Gobernuari euskal presoek etxeratzea eta dispersioaren amaiera eskatzen die.

6.-Euskal presoek eta euren senideek bizi duten sufrimendua arintze aldera, Udalbatza honek konpromisoa hartzen du presoek senideei diru-laguntzak emateko.

7.-Udalbatza honek bere atxikimendu osoa adierazten die espetxe politika salatzeko eta gose grebalariekin elkartasunez burutuko diren mobilizazioei, bertan parte hartzeko deia luzatzen duelarik ere.

Mozioa eztabaidatu eta puntu puntu bozkatu ostean, bakoitzean jasotako emaitzaz, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioa atzera botatzea ERABAKI DU Udalbatzarrak.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamaikak hogeit gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.